

IRAKASKUNTZA-GIDA 2019/20

Ikastegia 160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl. Zehaztugabea

Plana GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa 2. maila

IRAKASGAIA

25946 - Gizarte Egitura eta Estratifikazioa

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai hau soziologiaren ezagutza-eremuan kokatzen da. Irakasgai landutako hainbat puntu soziologiarako sarreran jorratu dira eta berau jarraitzeko ezinbeskoak dira.

Bere helburu orokorra, gizartearen errealitate material zein sinbolikoa artikulatzen duten oinarriko egiturak ezagutzea da, estratifikazioari buruzko teoria eta kontzeptu ezberdinak sakonduz eta, adierazle sozial enpirikoen bidez, egitura sozialaren funtsezko ezaugarriak aztertuz.

Irakasgai hau "Gizarte langintzak eragiten dien prozesu eta arazoak" izenburua duen Moduluan kokatzen da.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

IKASGAIAREN DESKRIBAPENA

Gizartearen errealitate material eta sinbolikoa artikulatzen duten egitura-giltzen ezagutza, estratifikazio sozialari buruzko teoria eta kategoria kontzeptual aniztan sakonduz eta egitura sozialaren ezaugarri nagusiak aztertuz, adierazle sozial enpirikoen bitartez.

GAITASUNAK

1. Gizartearen errealitate material eta sinbolikoak artikulatzen dituen oinarriko egitura-giltzak ezagutzea.
2. Estratifikazio sozialari buruzko teoria eta kategoria kontzeptual ezberdinetan sakontzea.
3. Errealitate soziala aztertzeko beharrezkoak diren informazio-iturri nagusiak ezagutzea.
4. Adierazle sozial enpirikoen bidez, mundu, Europa eta Euskadi mailako egitura sozialen ezaugarri nagusiak jorratzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Gizarte-egitura: interakzio soziala. Egitura sozialaren ezagutzak Gizarte Langintzan duen garrantzia. Egitura sozialari buruzko teoria handiak?
2. Estratifikazio soziala. Bilakaera historikoa eta estratifikazio sozialaren teoriak.
3. Prozesu demografikoak: biztanleriaren historia. Teoria demografikoak.
4. Egitura ekonomikoa. Iraultza industrialetik fordismora. Fordismotik postfordismora.
5. Ezberdintasun sozialak eta pobrezia. Genero ezberdintasunak.
6. Prozesu ideologikoak eta globalizazio kulturala.
7. Osasuna eta gaixotasuna. Osasunaren eta gaixotasunaren eraikuntza soziala. Osasuna gaur egungo mendebaldeko herrietan: gorputz osasuntsuaren eta gaixoaren estigmatizazioaren kultura. Ezberdintasun sozialak osasungintzan. Osasungintzan esku-hartzen duten sare formal eta ez-formalak: familia, boluntariora, osasungintzako erakundeak.

METODOLOGIA

Klase magistralak. Ikasgaia ikuspuntu teoriko batetik landuko da: oinarriko konzeptuak, argibide teorikoak, prozesu sozialen azalpenak, eta abar.

Klase praktikak. Klase magistraletan landutako gaiak modu ezberdinez sakonduko dira: irakurgaiak, taldeko eztabaidak, ariketak, eta abar. Zenbait kasutan, praktikak irakasleari entregatuko dira. Kasu hauetan, ikasleek aldeztu aurretik jakingo dute (bai zeregina, bai epea).

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Banakako lanak % 20
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAKETA JARRAIKIA:

- amaierako notaren %60a = idatzizko azterketa.
- amaierako notaren %40a = taldezkako lana.

Ezinbestekoa izango da azterketa eta taldezkako lana gainditzea irakasgaia gainditu ahal izateko.

AMAIERAKO EBALUAKETA:

- Amaierako ebaluaketaren kasuan, ebaluatu beharreko edukiak eta ehunekoak berdinak izango dira, izan ezik atal praktikoa banakako lan batean oinarrituko delarik. Kasu horretan, idazlana azterketa egunean entregatu beharko da.
- Atal praktikoa gainditu baina ikasgaia bere osotasunean gainditu ez duen ikasleak, amaierako nota gisa edukiko du azterketan lortutako emaitza.

EBALUAKETAN KONTUAN HARTZEKO:

"Normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. (Graduko Titulazio ofizialeko ikasleen ebaluaziorako arautegia".

"UPV/EHU honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkkotzat ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan adademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiatzea, hau da, ignoren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazi akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan".

"Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaiaren kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da" (8.3. art.).

DEIALDIARI UKO EGITEA:

"Etengabeko ebaluazioaren kasuan: "deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari" (12.2 art).

Azken ebaluazioaren kasuan: "azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea" (12.3 art).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdian bezalako arau eta jarduerak jarraituko dira.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

FERNANDEZ R. (1993): La explosión del desorden, Fundamentos, Madrid.

LUCAS A.(coord.) (2006): Estructura Social. La realidad de las sociedades avanzadas.: Pearson, Madrid.

KERBO H. (2003): Estratificación Social y Desigualdad, McGraw Hill, Madrid.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- ALONSO R. (1997): Estructura Social Contemporanea: Las clases sociales en los países industrializados. Madril, Siglo XXI.
- BELTRÁN, M. (2004): La estructura social. Barcelona, Ariel.
- BOTTERO, W. (2005): Stratification: Social division and inequality. Londres, Routledge.
- BOURDIEU, P. (2000): Poder, derecho y clases sociales. Bilbo, Desclée de Brouwer.
- BRETONES, M. T. (2001): Sociedades avanzadas: manual de estructura social. Barcelona, Hacer.
- FERNANDEZ R. (2003): Capitalismo financiero global y guerra permanente. Barcelona, Virus.
- GARCÍA DE POLAVIEJA, F.J. (2003): Estables y precarios: desregulación laboral y estratificación social en España. Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas.
- GIDDENS, A. (2009): Sociología. Madril, Alianza.
- JONES, O. (2012): Chavs. La demonización de la clase obrera. Madril, Capitán Swing.
- KERBO, H. R. (2003): Estratificación Social y Desigualdad. Aravaca, McGraw-Hill.
- MANZANOS C. (1999): ¿Estratificación social y nuevas desigualdades en la sociedad vasca?, en VV.AA., Sociedad Vasca y Construcción nacional. Donostia, GAKOA.
- MARTÍNEZ, R. (1999): Estructura social y estratificación: reflexiones sobre las desigualdades sociales. Buenos Aires, Miño y Dávila.
- POLAVIEJA, J. G. (2003): Estables y precarios: desregulación laboral y estratificación social en España. Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas.
- SASSEN, S. (2007): Una sociología de la globalización. Madril, Katz.
- VV.AA. (1999): Propuestas para un nuevo escenario, democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria. Bilbo, Manu Robles-Arangiz Insititootoa.
- Pelikulak:
Inside Job. 2010. C. Ferguson-ek zuzenduta.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK